



OHIKO KULTIBORAKO KARKAXA BILTZEA

BEHARREZKO MATERIALA

Aho zabaleko ontzi esterila



LAGINAK HARTZEKO TEKNIKA

1. Ahal dela, goizeko lehen lagina bilduko da.
2. Ahoa urez garbitu; hortzordeak izanez gero, kendu karkaxa jaso aurretik.
3. Karkaxa lortzea, zuzenean edukiontzi esterilean espektorazio sakona egin ondoren.
4. Lagina jaso ondoren, identifikatu lagina hartu den eguna eta ordua eta pazientearen izen-abizenak dituen ontzia.

KOPURUA

- Ahal bada, 5-10 ml.
- Lagin bakar batek, behar bezala bilduta, nahikoa izan behar du beheko arnasbideko infekzioak diagnostikatzeko, mikobakterioak edo onddoak ez badira.

LABORATEGIAN ENTREGATZEKO EPEA

- -Gehienez 24 ordu.
- -Laborategira berehala bidaltzen ez bada, hoztu 2-8 °C-an.